



Sartzeko Oinarri Arautzaileak  
KBi DIGITAL BILBAO, Auzo  
Factory Irazabal-Matikon  
2020



# Aurkibidea

1. Aurkezpena.....	3
2. Xedea.....	4
3. Tokia .....	5
4. Onuradunak eta baldintzak.....	5
5. Sartzeko eskubidea emateko prozedura.....	6
a. Sartzeko eskaera .....	6
b. Hautatzeko irizpideak.....	7
c. Eskaerak balioztatzea .....	7
d. Dokumentazioa .....	7
e. Erantzukizun zibileko aseguruua .....	8
f. Emateko hitzarmena .....	8
6. Kuotak .....	9
7. Ordutegia.....	9
8. Zerbitzuak.....	9
a. Instalazioetan eta zerbitzuetan sartzea .....	9
b. Egonaldia.....	11
9. Datu pertsonalen babesari buruzko oinarritzko informazioa .....	12
10. Lepakena .....	12
11. Publizitatea.....	12
12. Programaren indarraldia eta garapena.....	13
13. Interpretazioa.....	13
I. ERANSKINA. Arau komunak .....	14
II. ERANSKINA. Kuotak.....	17
III. ERANSKINA. ORDAINTZEN EZ DENEAN JARDUTEKO MODUAN .....	18

# 1. Aurkezpena

Bilbao Ekintza EPEL udal-erakundeak (hemendik aurrera, "Bilbao Ekintza"), hiriaren sustapen ekonomikoaz arduratzen denak, udalerrian enplegua eta aberastasuna sor ditzaketen enpresen erakarpena, sorrera eta hazkundera sustatzeko helburua du, besteak beste. Bilbao Ekintzak uste du ekimen berriek eta enpresa proiektu berriek nabarmen laguntzen dutela enplegua sortzen, baita kalitatezko enpresak sortzen ere, batez ere gure udalerrirako interes estrategikoa duten sektoreetan.

Eremu horren inguruan, Bilbao Ekintzak **Bilbao Auzo Factory** proiektua abiarazi du, hiriko zentroen sarea dena eta herritarren, auzoaren, enpresen eta hiriaren arteko elkargunea izateko helburua duena. Zentro horiek erreferentziazko espazioa izan nahi dute, herritarrentzat eta enpresentzat zabalik dagoena, hiriko garapen ekonomikoaren dinamizatzailea eta berritzailea dena, metodologia berriak, espazio berritzaileak eta zerbitzu aurreratuak dituen eta Bilbo hirirako estrategikoak diren sektoreetan arreta jartzen duena

Eremu estrategiko horietako bat industria sortzaileen barneko ekonomia digitalekoa da; izan ere, gure lurraldean dauden administrazioek sektore horren aldeko apustua egiten dute, Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak **Bilbao Bizkaia Design & Creativity Council** izenekoaren bidez sinatutako akordioan adierazi bezala. Eta, horregatik, bi administrazioak elkarrekin lan egiten ari dira, sektore horien trakzio-proiektuak abiarazteko, hiriko eta lurraldeko garapen ekonomikoari eta nazioarteko proiektuari laguntzen dietenak.

Bilboko Udalak jakin badaki esperientzia erkatuak egiaztatu duela sektore horretako sehaska aurreratuak eta espezializatuak abiarazteak eduki digitalen sektorearen trakzio jardun duela, horiek eratu diren hirietan eta lurraldeetan. Hori dela eta, positibotzat jotzen da uste du ekonomia digitalaren sektoreari eskainitako inkubagailu espezializatu bat sortzea eta abian jartzea, proiektu berrien aurre-inkubazio fasean, jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzeko modukoa izan daitekeela.

Bilboko Udalak espazio ezin hobea dauka mota horretako sehaska bat kokatzeko. Matiko kaleko 6. zenbakiko Irazabal eraikina. Bertan Udalak "Auzo Factory" bat sortu du, eta lehenengo eta bosgarren solairuen artekoak sehaska horretarako erabil daitezke.

Azaldutakoa oinarri hartuta, Bilbao Ekintza, EPEL erakundeko Administrazio Kontseiluak, 2020ko ekainaren 19an egindako bileran, "KBI DIGITAL BILBAO" ekintzailatza digitaleko sehaska aurreratuan sarbidea izateko araudia onartu du 2020. urterako, Bilbao Ekintzak kudeatzen duen Auzo Factory Irazabal-Matiko udal gunean.

## 2. Xedea

Oinarri hauen xedea da "Irazabal-Matiko" Bilbao Auzo Factory zentroko "KBI DIGITAL BILBAO BIZKAIA" ekintzailatza digitaleko sehaska aurreraturako sarbidea arautzea.

Honako oinarri hauetan bildutako neurrien helburua enpresa-proiektuen sustatzaileei eta Startup-ei laguntzea da, zerbitzuen arloko enpresa-jarduera garatzeko Bilbon kokatu nahi duten enpresei eta profesionalei hain zuzen, edota eduki digitalaren sektorean hazteko ahalmena duten proiektu berritzaile berriak garatzeko.

Horretarako, haren eskuetan jartzen da udalaren enpresa gunea, haien proiektuak toki egokian garatzeko modua izan dezaten, ingurune egokian, merkatura irteteko heldutasun maila lortu arte, hain zuzen ingurune lehiakorrean bizirik irauteko nahikoa trebetasun eta jakintza eskuratuta.

## 3. Tokia

Bere jarduerak garatzeko, KBI DIGITAL sehaskak Bilbao Auzo Factory Irazabal-Matiko eraikineko lehen eta bosgarren solairu artekoak izango ditu. Hala ere, oinarri hauetako xedean ezarritakoa alde batera utzirik, espazio hori berariazko beste erabilera batzuetarako erabili ahal izango da, KBI DIGITALen Kudeaketa Batzordeak onartutakoetarako, unean uneko beharizanen arabera eta sehaskan tokia erabilgarri dagoen aintzat hartuta.

## 4. Onuradunak eta baldintzak

a) Ekintzaileak eta enpresa gisa eratu aurreko enpresa-proiektuak:

- BIG Bilbaok eskaintzen dituen zerbitzuen bidez eginiko Negozio Plana. Edozein entitatearekin egiten bada Negozio Plana, Bilbao Ekintzako eta BEAZeko teknikariek bideragarritzat jo beharko dute plana.
- Ogasunean eta Gizarte Segurantzari ordainketak egunean izatea.
- Geroko enpresak Bilbon izatea sozietate eta zerga helbidea.

b) Enpresa eratuak eta ondasunen erkidegoak:

- Enpresaren betebeharra da behar bezala eratauta egotea, dagokien erregistroan izena emanda egotea eta identifikazio fiskaleko zenbaki bat izatea (IFZ).
- EJZn alta emanda egotea (Ekonomia-jardueren Zerga), gehienez bi (2) urteko antzintasunarekin, eta Bizkaian izatea zerga eta sozietate helbidea.
- Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak egunean izatea.
- Enpresek berritzailea den proiektu berri bat izan eta aurkeztu beharko dute.
- BIG Bilbaok eskaintzen dituen zerbitzuen bidez eginiko Negozio Plana, teknikariek baliozkotua. Edozein entitatearekin egiten bada Negozio Plana, Bilbao Ekintzako eta BEAZeko teknikariek bideragarritzat jo beharko dute plana, edo Egoeraren Balantzea eta Eraitzen Kontua edo Sarreraren eta Gastuen Erregistroa aurkeztu.

c) Kanpoan geldituko dira herri administrazioetako entitateak eta/edo erakunde eta sozietate publikoak, baita 81. multzoan (finantza-erakundeak) bildutako Ekonomia-jardueren gaineko Zergako epigrafeen eta/edo taldeen barruko jarduera nagusi gisa duten entitateak ere.

## 5. Sartzeko eskubidea emateko prozedura

### a. Sartzeko eskaera

Zentroko espazioetan eta zerbitzuetan sartzeko prozedura deialdi irekian egingo da Oinarri hauek indarrean izango diren epealdian.

Eskaera-orria interesdunen eskura egongo da Oinarri hauek onesten diren egunetik hasita Bilbao Ekintza, EPELren web orrian ere, “Laguntzak” atalean hain zuzen ere. Era berean, posta

elektronikoko helbide honetan egongo da eskuragarri:  
[auzofactorymatiko@bilbaoekintza.bilbao.eus](mailto:auzofactorymatiko@bilbaoekintza.bilbao.eus)

Behar bezala beteta eman beharko dira, termino guztietan, Oinarri hauetako 5.d) atalean aipaturiko dokumentazioarekin batera, balioztatzeko.

Interesdunak eskaera aurkezteak oinarri hauen edukia onartzea ekarriko du.

Eskabideak jaso ondoren, ez badaude erabat beteta edo ez bazaie beharrezko dokumentazio osoa atxiki, interesdunei eskaera egingo zaie 10 egun balioduneko epean falta dena konpondu dezaten edo nahitaezko agiriak aurkeztu ditzaten; horrez gain, ohartarazpena egingo zaie, horrela egin ezean eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela, eta beste izapiderik gabe espedientea artxibatu egingo da; Bilbao Ekintzak ez du eskaera horren gaineko berariazko ebazpena eman beharko.

Nolanahi ere, Bilbao Ekintzak eskatu ahal izango die oinarri hauetan jasotako onuren eskatzaileei aurkeztutako eskaera egoki ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezko jotzen duen dokumentu eta/edo informazio gehigarri guztia. Era berean, proiektua hobeto ulertzeko elkarrizketa bat izateko ere eskatu ahal izango du.

Bilbao Ekintzaren teknikariek eskaerak aztertuko dituzte, eta hautaketa-irizpideak kontuan hartuta eskaera horiek baloratu eta erabaki bat hartuko dute.

Kudeaketa Batzordeak adituen aholkularitza jaso ahal izango du aurkezturiko proiektua dela-eta hala egitea eskatzen badu.

Lanpostuen kopuruan aldaketak egiteko, emakidadunak idatzizko eskaera aurkeztu beharko du. Bilbao Ekintzak erabakiko du eskaturiko aldaketa ematea edo ez ebazpen bidez. Bi agiriak aldeek sinaturiko Hitzarmenari gehituko zaizkio eranskin gisa. Eskaturiko aldaketa baimentzean indarrean dauden Oinarrietan ezarritakoa izango da aplikatu beharreko kuota.

## b. Hautatzeko irizpideak

Zentroan sartzeko, honako irizpide hauek balioztatuko dira:

- Eskaintzen diren produktu eta zerbitzuen izaera berritzailea.
- Produktuen eta zerbitzuen xede den merkatuaren potentziala.
- Proiektuek hazteko, eta jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzeko duten gaitasuna.

- Talde sustatzailearen sendotasuna eta gaitasuna.
- Auzo Factory zentroan aurretik ezarrita dauden proiektuekin lankidetzak sortzeko gaitasuna.
- Negozio plana eta/edo garapen proiektua.

### c. Eskaerak balioztatzea

Bilbao Ekintzako teknikariek izapidetuko dituzte eskaerak, eta Kudeaketa Batzordeak aho batez erabakiko du zentroan sartzeko onespena. Eta eskaera aurkeztu zaion Bilbao Ekintzako Zuzendaritzaren banako eta berariazko jakinarazpenaren bidez emango da ebazpena.

Eskaerak sarrera-ordenari jarraiki ebatziko dira, zentroan plaza libreak dauden neurrian betiere.

### d. Dokumentazioa

1. Sartzeko eskaera.
2. Bankuko datuak. "Bankuko datuen fitxa" inprimakirekin bidez emango dira.
3. Bazkideen Nortasun Agiriaren kopia.
4. Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak emandako jatorrizko ziurtagiria, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorreko edo Langile Autonomoen Araubide Bereziko kuotak behar bezala ordainduta daudela egiaztatzen duena.
5. Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak egunean dituelako ziurtagiriak.
6. Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda duela ziurtatzen duen agiria.
7. Negozio plana eta/edo garapen proiektu berritzailea, Bilbao Ekintzako teknikariek baliozkotua, non aurreko b) idatz-zatian ezarritako baliozkotze-irizpideak bilduko diren.
8. Dagoeneko eraturik dauden sozietateak edo ondasunen erkidegoak badira:
  - a. Eskatzailearen ordezkari ahalordearen egiaztatzea.
  - b. Eskrituren (Merkataritza Erregistroaren eginbidearekin) edo eraketaren akordioaren kopia.
  - c. Identifikazio Fiskalaren Txartelaren kopia (IFZ).
  - d. Egoeraren balantzea eta Emaizten Kontua edo aurreko ekitaldiko Sarreraren eta Gastuen Erregistroa.
9. Enpresa-proiektuak badira: etorkizunean Bizkaian kokatzeko konpromisoaren dokumentua, EJZn alta emandakoan.

## e. Erantzukizun zibileko aseguruua

Espazioa okupatu aurretik, Erantzukizun Zibileko Aseguruua kontratatu beharko dute lagapen-hartzaileek, jardueran aritzeak, instalatutako mekanismoen funtzionamenduak eta abarrek okupatutako espazioari, instalazio eta elementu komunei, hirugarrenei eta beste onuradun batzuei sor diezazkieketen kalte pertsonal eta materialak estaltzeko.

Lagapen-hartzaileak bere egintzez erantzuteaz gain, modulu adjudikatuan dauden pertsonak egin ditzaketenei ere erantzuten die Bilbao Ekintzak lagatako espazioan, bai kontratua suntsitzeko ondoreetarako, bai kalte edo eragozpenen kalte-ordain posible baterako.

Horrez gain, kontraturiko aseguru-polizaren kopia eman beharko du lagapen-hartzaileak espazioa erabili baino lehen.

Aseguru-polizak indarrean egon beharko du lagapen hitzarmenaren indarraldi osoan.

## f. Emateko hitzarmena

Espazioa okupatu aurretik eta Bilbao Ekintzari nahitaezko dokumentazioa entregatu ondoren (Erantzukizun Zibileko Aseguru-poliza barne), Bilbao Ekintzak hitzarmen bat sinatuko du lagapen hartzaile bakoitzarekin, eta bertan jasoko dira espazio hori erabiltzeko lagapenaren baldintza arautzaile orokorrak zein zehatzak.

Emateko Hitzarmena indarrean sartzean, Bilbao Ekintzak moduluetan sartzeko txartelak emango ditu Bilbao Ekintzak postuen kopuruaren arabera. Galdu izanagatik txartel osagarriren bat behar izanez gero, lagapen-hartzaileak hartuko du bere gain txartela emateko kostua (3€ gehi bidezko BEZa) hurrengo hileko fakturan.

Txartel izendunak, pertsonalak eta besterenezinak dira. Hitzarmenaren indarraldia bukatutakoan, lagapen-hartzaileak bere eskuetan dituen txartel guztiak eman beharko ditu.

## 6. Kuotak

Emandako espazioaren lagapenari dagokion kuota hartuko du bere gain lagapen-hartzaile bakoitzak (lanpostuen guztizko kopurua).



Dokumentu honen II. eranskinean ageri dira zehaztuta 2020ko kuotak, banako gutxieneko zerbitzuak nahiz 8.a) idatz-zatian aipaturiko zerbitzu orokorrak biltzen dituztenak.

Kuotak urtero eguneratuko dira, eta Bilbao Ekintzako Administrazio Kontseiluak onetsiko dituzten Oinarrien eranskinarekin argitaratuko dira.

Kuota ordaindu ezean, Oinarri hauetako III. eranskinean zehazturiko prozedura aplikatuko da.

## 7. Ordutegia

KBi DIGITAL sehaska egun osoan izango da zabalik (24 orduz) zentroan lan egiten duten pertsonentzat.

## 8. Zerbitzuak

### a. Instalazioetan eta zerbitzuetan sartzea

- KBi DIGITAL sehaskan lan egiteko espazioa hartzea, lagapen erregimenean, baita eraikineko espazio komunetan sartzea ere: batzar-gelak, sukaldea-txokoa...
- Lehentasunez sartu ahal izatea enpresa-proiektuarekin lotuta dauden eta zentroan antolatzen diren dinamiketarako, erakustaldietarako, foroetarako eta bestelako dinamizazio-jardueretarako espazioetan.
- Gutxieneko zerbitzu orokorrak:
  - Garbitzea eta mantentzea.
  - Berokuntza.
  - Aire egokitua.
  - Ura eta argindarra.
  - Auzo Factoryn eskainitako Interneteko sareko konexioa erabiltzea nahitaez; galarazita dago nork bere operadorea kontratatzea.
  - Askotariko funtzioko inprimagailu zerbitzua. Bilbao Ekintzak ez du paperik emango, baina eskaintzen duen zerbitzuaren funtzionamendu onerako beharrezkoa den tonerraren kargua hartuko du.
- Banako gutxieneko zerbitzuak (enpresa-espazioetako altzariak):
  - Mahaia.

- Aulkia.
- Tiradera-altzaria.
- Txartel-leihatila.

Ezin izango da sartu eraikinean Auzo Factoryko espazioa hartzen duen elementurik hala nola altzariak edo beste ekipamendu batzuk. Lagapen-hartzaileak, arrazoi objektiboak tarteko hala egitea justifikatuta dagoenean, beren lanpostuetan sartu ahal izango ditu, baina aurretik Bilbao Ekintzaren berariazko baimena beharko du.

- Tutorizazio zerbitzuak:

Proiektuaren tutorizazio zerbitzua eskuratzea, Bilbao Ekintzak eta BEAZek erabiltzaileen eskura jarritakoa. Enpresak sortzeko eta lehiakortasuna hobetzeko laguntza zerbitzuak eta programak eskuratu ahal izango dira.

- Beste zerbitzu batzuk:

Edozein lagapen-hartzailek eskatu ahal izango dio Bilbao Ekintzari zerbitzu berriak emateko eta egokitzapenak egiteko. Bilbao Ekintzak, azterlana egindakoan, zerbitzua edo egokitzapen baimenak eman ala ez erabakiko du, baita horiek ezartzeak eta mantentzeak zerbitzuok erabiltzen dituen lagapen-hartzaileari ekarriko dion kostua ere.

- Enpresek KBi DIGITALen kokatu ahal izango dute beren sozietate egoitza.

## b. Egonaldia

Lagapen Hitzarmena hasieran urtebeterako (1) sinatuko da gutxienez, eta automatikoki luzatuko da urtealdietan baimendutako gehieneko epealdia bete arte:

- Dagoeneko eraturik dauden enpresak badira: gehienez lau (4) urtez luzatu ahal izango da.
- Enpresa-proiektuak badira: gehieneko epea urtebetekoa (1) izango da.  
Proiektua EJZn alta emanaz gero, baimendutako gehieneko 4 urte osatu arte gelditzen den denboran luzatu ahal izango da egonaldia.

Kasu bietan, lagapen hitzarmena sinatzen denetik aurrera hasiko da egonaldirako epea.

Salbuespen gisa, Bilbao Ekintzako teknikariek balioztatu eta Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiak onetsi ondoren, egonaldiaren iraupenari buruzko baldintzak aldatu ahalko dira, zentroan kokatutako proiektuen garapenaren arabera.

Kbi DIGITAL sehasakako Kudeaketa Batzordeak zentroan kokaturiko proiektu guztien urteko balorazioa egingo du, bertan jarraitzea balioztatzeko eta onesteko. Baldin eta Kudeaketa Batzordearen urteko balorazioa negatiboa bada, lagapen hitzarmena desegingo da.

Lagapen-hartzaileak hitzarmena bukatu baino lehen erabaki dezake hura desegitea, betiere Bilbao Ekintzari eskaera formalaren bidez jakinarazten badio, idatziz, gutxienez hilabete (1) lehenago.

Bilbao Ekintzak kudeaturiko Auzo Factory zentroetako bateko gehieneko egonaldiaren iraupena agortzeak berekin ekarriko du eskaerak atzera botatzea, onuradun berek beste zentro batzuetan eska ditzaketenak, hala denean.

Hitzarmenak indarrean jarraitu bitartean lanpostuen kopuruan aldaketak gertatzen badira, idatziz eskatu beharko ditu lagapen-hartzaileak, idatziz, dagokion inprimakia beteta. Bilbao Ekintzak berariaz emango duen jakinarazpenaren bidez ebatziko dira eskaerak. Hitzarmenari erantsiko zaio eskaera, baita eginiko jakinarazpena ere.

Eskaera egiten denean indarrean dauden Oinarriei dagokiena izango da aplikatu beharreko kuota, eskaturiko aldaketa onetsitakoan betiere.

## 9. Datu pertsonalen babesari buruzko oinarrizko informazioa

Datu Pertsonalei eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatu denarekin bat etorriz, Bilbao Ekintza, EPELk erabiliko ditu lagapen-hartzaileen datuak.

“EKINTZAILEAK” tratamenduaren helburua da kultura ekintzailea sustatzea xede duen zerbitzua garatzea, enpresa ekimen berriei laguntzea eta enpresa berri horiei kalitate zigu bereizgarri bat ematea, interesdunaren baimenarekin. Aipatutako zerbitzuekin lotura duten hirugarrenei eman ahal izango zaizkie datu pertsonalak. Beren datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea dute, baita tratamendua mugatzeko edo aurkaratzeko ere. Datuen

babesaren arloko argibide gehiago eskura daitezke Bilbao Ekintza, EPELren web orrian, edo posta elektronikohonetan: [juridico@bilbaoekintza.bilbao.eus](mailto:juridico@bilbaoekintza.bilbao.eus)

## 10. Lekapena

Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiak, aurretik txostena izanik eta bere teknikariek proposatuta, oinarri hauetan ezarritako gutxieneko eskakizunetako eta baldintzetako bat lekatu ahal izango du, salbuespenez, zioak emanda eta inguruabar berezien arabera.

Nahikoa zio emanda izango ditu lekapenak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35.i) artikuluan xedatutakoa dela bide.

Lekapen eskaerarekin batera, eskatutako lekapena justifikatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira.

## 11. Publizitatea

Baldin eta lagapen-hartzaileak Bilbao Ekintzaren, Bilbao Auzo Factoryren, BEAZen eta/edo KBi Digitalen logoa erabili behar badu edozein bitarteko erabiliz publizitatea egiteko, hots, zentroan kokaturiko enpresek edota enpresa-proiektuak egiten dituzten jarduera partikularrei buruzkoa, idatziz nahiz ikus-entzunezkoen edo bitarteko elektronikoen bidez, aurretik Bilbao Ekintzaren berariazko onespena beharko da.

Galarazita dago lagapen-hartzaileek enpresaren jarduerarekin berariaz zerikusirik ez duen publizitaterik jartzea.

## 12. Programaren indarraldia eta garapena

Programa honen oinarriak aplikatuko zaizkie oinarriak onartzen diren egunetik aurrera aurkeztutako eskaerei eta 2020. urtean. Epe hori luzatu egin ahal izango da Administrazio Batzordeak hala erabakita.

Nolanahi ere, oinarri hauen indarraldia amaitzen denean ere erabili ahal izango dira oinarriok, harik eta Bilbao Ekintzako Administrazio Kontseiluak hurrengo ekitaldirako oinarriak onartzeko

geratzen diren bitartean, eta Bilbao Ekintzak hemen araututako zerbitzuen prestazioa etetea erabakitzen ez bada.

Oinarriak indarrean dauden bitartean, bertan kontuan hartzen diren alderdietako baten bat garatu behar bada edo programa funtsean aldatzen ez duen egokitzapenen bat egin behar bada, Administrazio Kontseiluak eskumena ematen dio Bilbao Ekintza EPELen Zuzendaritzari aldaketa horiek egiteko. Zuzendaritzak aldaketak egin ondorengo lehen bileran emango dio Kontseiluari aldaketen berri.

## 13. Interpretazioa

Bilbao Ekintzak eskubidea gordeta du egoera zalantzarrietan oinarri hauek interpretatzeko, eta bere erabakiak behin betikoak izango dira.

# I. ERANSKINA. Arau komunak

## 1. Egonaldi erregimena

- a) Espazio horiek erabiltzeko oinarri hauen 5.f) puntuari ezarritako baldintzak bete beharko dira.
- b) Espazioa erabiltzeko eskubidea pertsonala eta besterenezina da, eta ezingo da errentan eman edo laga, ez osorik ezta zati bat ere, ez doan eta ez behin-behinekoz ere.
- c) Jarduera hasteko eta garatzeko beharrezko administrazio baimenak eta lizentziak izan beharko dituzte, horri dagokionez indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz.
- d) Gehienez hamar (10) postu hartu ahal izango dira proiektu edo enpresa berdin bakoitzeko.
- e) Lagapen-hartzaileen jarduerak hasteko gehieneko epea bi (2) hilabetekoa da, lagapenaren jakinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita.
- f) Modu eraginkorrean erabiltzeko eran mantendu beharko da espazioa. Salbuespen gisa, eta aurrez eskaera arrazoitu bat eginda, Bilbao Ekintza EPELek baimena eman dezake behin-behinean erabilera gelditzeko. Behin betiko uzten bazaio espazioa erabiltzeari, entregatutako baldintzetan utzi beharko da.
- g) Eskaintako Interneteko zerbitzuari dagokionez, instalazioa egindakoan, zerbitzua eskaintzen duen kanpoko enpresara jo behar da edozein gorabehera edo eskaera izanez gero. Bilbao Ekintza arduratuko da kontaktu-datuak emateaz.
- h) Kasuan kasuko espazioan egonaldia bukatu ondoren onuradunak bere jabetza guztiak kendu beharko ditu bertatik. Horrela egiten ez badu, Bilbao Ekintzak kendu ahalko ditu, eta egonaldia bukatu den unetik 3 hil igaro ondoren desagerrarazi ahalko ditu.
- i) Lagapen-hartzaileek elementu komunak erabiltzeko eskubidea daukate, hain zuzen ere gainerakoek ere erabiltzea posible egingo duen gisan eta Bilbao Ekintzak ezarritako dituen arauarekin bat etorriz; gai honi dagokionez arazoren bat sortuz gero, Bilbao Ekintzak ebatziko du.

## 2. Proiektuak garatzeko baldintzak

Diruz lagundutako proiektuen garapenak ezin izango ditu urratu hirugarrenei legezko edozein tresnaren bitartez aitortutako eskubideak, nazioartekoak zein estatukoak, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala barne.

Halaber, 1083/2006 Araudiko (EE), I. tituluko IV. kapituluko 16. eta 17. artikuluetan jasotako oharren arabera, Bilbao Ekintzak enpresei eta enpresak sortzeko proiektuei laguntzeko dituen tresnen bitartez, erakunde onuradunek gauzatzen duten merkataritza-praktikak araudi horretan jasotako irizpideak errespetatu beharko ditu; horrenbestez, ingurumena babestu eta hobetzeko sustapenarekin eta garapen iraunkorarekin zerikusia duten jardunbide egokien inguruan sentsibilizatzea bilatuko du, bai eta enpresen barruan lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari lotutako jardueri dagokienez ere. Halaber, sexuan, arrazan edo jatorri etnikoan, erlijioan zein sinesteetan, desgaitasunean, adinean edo sexu orientazioan oinarritutako diskriminazioaren aurka eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egingo da.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuarekin bat etorriz, onuradunek beren proiektua gauzatu eta zabaltzeko euskara eta gaztelania erabiliko dituzte; hala ere, proiektuen esparruak hala eskatzen duenean, beste hizkuntza batzuk ere erabiltzeko aukera izango dute.

### 3. Betebehar orokorrak

- a) Eskatutako informazioa ematea Bilbao Ekintzari, programa honen helburuari dagokionez bere funtzioak egiteko.

Urtearen hasieran, sehaskako enpresek eta ekimenek nahitaez zehaztu behar dute beren Kudeaketa Plana, non zenbatetsitako hazkunde-aurreikuspenetara iristeko egin beharreko ekintzak zehaztuko diren. KBi Digitalek jarraitu beharreko txantiloia emango du eta hura definitzeko beharrezko orientazioa eskainiko du.

Sei hilean behin, bere kudeaketa planean zehazturiko ekintzen jarraipena egingo da. Bereziki landuko da negozio-eraginari buruzko datuak (fakturazioa eta enplegua).

- b) Bilbao Ekintzarekin hitzartutako baldintzetan edozein aldaketa suertatuz gero, horren berri ematea puntualki.
- c) Enpresa-espazioetan lanean ari diren langileen kopuruaren edozein aldaketa gertatzen bada, idatziz eta aldez aurretik jakinarazi beharko zaio Bilbao Ekintzari.
- d) Instalazioak modu egokian erabiltzea, baita elementu komunak eta izaera indibidualeko gutxieneko zerbitzuak ere.
- e) Espazio bakoitzeko segurtasuna dagokion lagapen-hartzailearen erantzukizuna izango da.

f) Eta, oro har, oinarri hauetan adierazten diren guztiak, baita lagapen-hitzarmenean aipatzen diren betebeharrak ere.

#### 4. Arrisku Orokorrei Aurrera Hartzea

Lagapen-hartzaileek Laneko Arriskuen Prebentzioko araudi orokorra errespetatu beharko dute, baita Bilbao Ekintzarena berarena ere oro har eraikinari dagokionez, betiere lanpostu propioei dagokienez prebentzioaren araudia zuzenean betetzeari kalterik egin gabe hori guztia, baita beren eginkizunak betetzen dituzten langileen osasun baldintzen aldetik ere.

Halaber, lagapen hartzaileek euren gain hartzen dute Bilboko Udal Erakundearen Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuak bere eskumeneko esparruan egindako gomendioak betetzeko konpromisoa, programa gauzatzeari garatzen duen jarduerak xede horietarako garrantzia duela erabakitzen den orotan.

#### 5. Tabakismoari aurre egiteko neurriak

Tabakismoari aurre egiteko osasun-neurrien eta tabako-produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituen Legea (28/2005 Legea, abenduaren 26koa) eta droga-mendetasunaren arloko prebentzio, laguntza eta gizarteratzeari buruzko Legearen hirugarren aldaketaren otsailaren 3ko 1/2011 Legea betetz, ezingo da erre zentroko instalazioetan, ez oinarri hauen lagapenaren xede diren espazio-lanetan ez horien elementu komunetan, aire zabaleko eremuetan izan ezik, horrelakorik badago.

#### 6. Betebeharrak ez betetzea eta ondorioak

Bilbao Ekintzako Zuzendaritzaren Ebazpenaren bidez deklaratu da betebeharrak ez betetzeak eta ondoren hitzarmena desegitea, behar bezala jakinaraziko dena, Interesatuei prozeduraren ebazpenaren berri ematea Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Ebazpen horren aurretik, Auzo Factoryko Kudeaketa Batzordeak gaiari buruzko txostena egingo du.

Lagapen-hartzaileek ordainketa betebeharrak ez betetzearen ondorioz hitzarmena etentzat jotzeko nahikoa izango da dagokion kuota epe barruan ordaindu gabe lehen aldiz utzi duenean lagapen-hartzaileari hori jakinarazi izana.



## II. ERANSKINA. Kuotak

Hona hemen hilero ordaindu beharreko kuotak (BEZ aparte) 2020. urtean, langileen kopurua kontuan izanik:

LANP. ZK.	PREZIOA BEZ <u>BARIK</u>
1	50
2	100
3	150
4	200
5	250
6	300
7	320
8	340
9	360
10	380

Lanpostu bakoitzeko prezioa gehienez sei (6), 50 eurokoa izango da postu bakoitzeko. Seigarrenetik hasita eta gehienez hamar (10) izanik, prezioa 20 euro igoko da postu bakoitzeko.

Kuotak urtero eguneratuko dira, Bilbao Ekintzako Administrazio Kontseiluak urtero onetsiko dituen oinarrietan ezarritakoarekin bat etorritik.

### III. ERANSKINA. ORDAINTZEN EZ DENEAN JARDUTEKO MODUA

#### 1. Arau-esparrua

Espazioen lagapenerako urteko oinarri aplikagarrietan nahiz horretarako izenpetzen diren hitzarmenetan, lagapen-hartzailearen betebeharrak ez betetzearen ondorioz ezarritako ondorioak ezarri dira; horien artean, hitzarmena desegitea dago.

Betebeharrak ez betetzea eta horren ondorioz hitzarmena etetea Bilbao Ekintza EPELeke Zuzendaritzaren ebazpenaren bitartez deklaratuko dira. Teknikariek, aldez aurretik, horri buruzko txostena eman beharko du. Kudeaketa Batzordeari jakinaraziko zaizkio prozedura horren hasiera.

#### 2. Jarduteko prozedura

- 2.1. Kontabilitateak hileko kuotei dagozkien ordainagiriak igortzen ditu, *Auzo Factoryn* postuak hartzeagatik, fakturazten den hilearen barruan.
- 2.2. Kontabilitateak itzulitako ordainagiriak detektatuko ditu, eta gure aldetik akatsik ez dagoela egiaztatu ondoren, Auzo Factoryk izendaturiko pertsona lagapen-hartzailearekin jarriko da harremanetan, gorabeheraren arrazoia egiaztatzeko eta kontabilitateak egiteke dagoen ordainketa eskatuko du.
- 2.3. Bilbao Ekintzak kasuan kasuko inguruabarrak aztertu ahal izango ditu (enpresa/proiektuaren ibilbidea, egungo egoera, aurreikuspenak...), baita ordainketa berehala egitea eska daitekeen balioztatu ere, edo bestela, ea komeni den gerorapena edo ordaintzeko baldintza zehatz batzuk ezartzea. Nolanahi, baldintza horiek idatziz jakinaraziko dio Bilbao Ekintzak erabiltzaileari.
- 2.4. Izapide hori egindakoan oraindik ez bada egin ordainketa, Aholkularitza Juridikoari igorriko zaizkio jarduketak, egoki irizitako mekanismoak martxan jar ditzan.